

**ERABAKIA, 2020KO IRAILAREN 22KOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO /EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GARAPEN ZIENTIFIKOAREN ETA TRANSFERENTZIAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, 2020. URTEAN UNIBERTSITATEA-ENPRESA GELAK EKIPATZEKO ETA HORIEN JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZEN 2020KO BIGARREN DEIALDIA EGITEN DUENA.**

Unibertsitatearen Estatutuek diotenez, unibertsitatearen helburu dira, besteak beste: "jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratzearen bidez" (1.a) artikulua); "Profesionalen etengabeko prestakuntza eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten gizarteko beste taldeen etengabeko prestakuntza edo bizi-tza osoko prestakuntza sustatzea." (1.e) artikulua); "Harremanak izatea eta hitzarmenak egitea erakunde publiko eta pribatuekin, UPV/EHUko tituludunen prestakuntza hobea izan dadin eta, ondorioz, lanean hasteko aukera gehiago izan dezaten." (1.h) artikulua).

Helburu horiek kontuan hartuta, UPV/EHUk Unibertsitate-Enpresa gelak bultzatzen ditu UPV/EHUren ikastegietan, eta bitarteko eraginkorra dira ikastegi eta sailak enpresekin eta beste erakunde batzuekin (publikoekin zein pribatuekin) lankidetzan aritzeko ikerketa jardueretan, teknologia eta berrikuntza garatzeko eta prestakuntza lantzeko bai ikasleekin, bai enpresetako langileak birziklatzeko eta langile horiei etengabeko prestakuntza emateko.

**RESOLUCIÓN DE 22 DE SEPTIEMBRE DE 2020, DEL VICERRECTOR DE DESARROLLO CIENTÍFICO Y TRANSFERENCIA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, POR LA QUE SE CONVOCAN POR SEGUNDA VEZ EN 2020 AYUDAS PARA EL EQUIPAMIENTO Y LA ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES DE LAS AULAS UNIVERSIDAD-EMPRESA**

De acuerdo a los Estatutos de la UPV/EHU, son fines propios de la institución la creación, crítica y transmisión del saber, contribuyendo al avance del conocimiento y al desarrollo social mediante la investigación y la transferencia de sus resultados a la sociedad (art. 1. a); la formación continua de profesionales y la formación permanente o a lo largo de la vida de otros colectivos sociales que demanden enseñanza superior (art. 1. e) y el establecimiento de relaciones y acuerdos con instituciones y entidades públicas y privadas que permitan mejorar la preparación de sus tituladas y titulados y, en consecuencia, su incorporación al mercado (art. 1. h).

De acuerdo con dichos cometidos, la UPV/EHU viene impulsando y fomentando la fórmula de las aulas Universidad-Empresa en cuanto espacios que se ubican en los Centros de la UPV/EHU, y que constituyen un instrumento eficaz de colaboración entre aquéllos y sus departamentos, y las empresas y otras entidades públicas y privadas, tanto en actividades relacionadas con la investigación, el desarrollo tecnológico y la innovación, como en todo lo referente a la formación, sea de los futuros titulados/tituladas, sea en actividades relacionadas con el reciclaje y la formación

Unibertsitatea-Enpresa geletarako ekipamendua eskuratzeko eta jarduerak antolatzeko bigarren laguntza deialdi honek (2020 urtekoak) helburu dauka, lehen lehenik, formalki eratuta ez egoteagatik, 2020ko lehenengo deialdian laguntzarik eskuratu ez zuten Unibertsitatea-Enpresa gelak sustatzea. Bigarrenik, aurreko deialdian eskaera bat aurkeztu ezin izan zuten arduradunen ikasgelak babestea. Azkenik, aipatutako gelen premiei erantzun ondoren programa honi dagokion finantzaketa agortu ez bada, laguntzak eman ahal izango zaizkie Unibertsitatea-Enpresa Geletarako laguntzen aurreko deialdiaren oinarrien arabera laguntza horri eska dakioken gehieneko kanpo-finantzaketa lortzeko gai izan diren arduradunen Gelei.

Helburu hauetarako 130.000 € bideratuko dira guztira, Unibertsitate-Enpresa ikasgeletarako 2020ko lehen laguntza-deialdiari esleitutako finantzaketaren soberakina direnak.

Adierazitako guztiagatik, UPV/EHUren estatutuetako 197. eta hurrengo artikuluetan ezarritako eskumenak baliatuta (2011ko otsailaren 24ko 38. zenbakiko EHAA), hau

continua de personal de las empresas.

La segunda convocatoria de ayudas para el equipamiento y la organización de actividades de las Aulas Universidad-Empresa del año 2020 tiene como finalidad, en primer lugar, dar impulso a las Aulas Universidad-Empresa que no pudieron obtener ayuda alguna en la primera convocatoria de 2020 por no estar formalmente constituidas. En segundo lugar, apoyar a aquéllas Aulas cuyos responsables, por diferentes motivos, no pudieron presentar una solicitud en la convocatoria anterior. En fin, siempre que, una vez atendidas las necesidades de las Aulas antedichas, no se haya agotado la financiación correspondiente a este programa, se podrán conceder ayudas a aquéllas Aulas cuyos responsables hayan sido capaces de captar financiación externa que supere el límite de la ayuda máxima que, según las bases de la convocatoria anterior de ayudas para Aulas Universidad-Empresa, puede solicitarse en la misma.

A estos fines se destinará un total de 130.000 € que constituye el remanente de la financiación asignada a la primera convocatoria de ayudas a Aulas Universidad-Empresa de 2020.

Por todo lo expuesto, en ejercicio de las competencias establecidas en el artículo 197 y siguientes de los Estatutos de UPV/EHU (BOPV nº 38 de 24 de febrero de 2011),

## ERABAKI DUT:

**LEHENENGOA.-** Onartzea UPV/EHUko Unibertsitatea-Enpresa geletarako ekipamendua eskuratzeko eta jarduerak antolatzeko bigarren laguntza deialdia, 2020ko ekitaldikoa.

**BIGARRENA.-** Onartzea aipatutako deialdia arautuko duten oinarriak, erabaki honi atxikitakoak.

**LAUGARRENA.-** Deialdia eta oinarriak UPV/EHUko ikastegi eta ataletara bidaltzea eta UPV/EHUko Transferentzia eta Berrikuntzaren web gunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/enpresa/home>) eta UPV/EHUren iragarki-taula korporatiboan argitaratzea.

**BOSGARRENA.-** Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordearen esku uztea deialdi hau garatzeko eta ezartzeko beharrezko diren egintza eta erabaki guztiak, bai eta, beharrezko izanez gero, epeak luzatzeko aukera ere.

**SEIGARRENA.-** Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, eta oinarrien aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakiok erabakia eman duen organoari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko Transferentzia eta Berrikuntzaren web gunean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

## RESUELVO:

**PRIMERO.-** Acordar la segunda convocatoria de ayudas para el equipamiento y la organización de actividades de las Aulas Universidad-Empresa de la UPV/EHU en el ejercicio 2020.

**SEGUNDO.-** Aprobar las bases reguladoras que regirán dicha convocatoria, y que se adjuntan a la presente resolución.

**CUARTO.-** Remitir la convocatoria y sus bases reguladoras a los Centros y Secciones de la UPV/EHU, así como publicar las mismas en el Portal web de Transferencia e Innovación de la UPV/EHU

(<https://www.ehu.eus/es/web/enpresa/home>) y en el Tablón de anuncios Corporativo de la UPV/EHU.

**QUINTO.-** Encomendar al Vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia el dictado de cuantos actos o resoluciones fueran necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente convocatoria, así como la posibilidad de ampliar los plazos si fuese necesario.

**SEXTO.-** Contra la presente Resolución, la cual agota la vía administrativa, y sus bases, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Portal web de Transferencia e Innovación de la UPV/EHU.

Horrez gain, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Bilboko epaitegietan.

Berraztertze errekurtsoa jarriz gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoaren ebazpen espresua eman edo presuntzizko ezespina gertatu arte.

Leioa, 2020ko irailaren 22(a)

No obstante, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, ante los Juzgados de Bilbao.

En el caso de haber interpuesto recurso de reposición, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta la resolución expresa o presunta del primero.

En Leioa, a 22 de septiembre de 2020.

GARAPEN ZIENTIFIKOAREN ETA TRANSFERENTZIAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA  
EL VICERRECTOR DE DESARROLLO CIENTÍFICO Y TRANSFERENCIA



Fernando Tapia Alberdi

**OINARRIAK, UPV/EHUko  
UNIBERTSITATEA-ENPRESA  
GELETARAKO EKIPAMENDUA  
ESKURATZEKO ETA JARDUERAK  
ANTOLATZEKO XEDEZ LAGUNTZAK  
ESKURATZEKO BIGARREN DEIALDIA  
ARAUTZEKOAK.**

**LEHENA.- HELBURUA**

1.1.- Deialdi honen helburua da UPV/EHUko Unibertsitatea-Enpresa geletarako ekipamendua eskuratzeko eta jarduerak antolatzeke laguntza deialdia egitea 2020 urterako (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).

1.2.- Deialdi honetako jarduerak 2020 urtearen barruan egin behar dira.

1.3.- Ezin izango da egin jarduera bererako eskaririk UPV/EHUko deialdi batean baino gehiagotan.

1.4.- Laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berdinerako eman ditzakeen dirulaguntzekin, baldin eta lagundutako jarduerak gain-finantziatorik ez badu.

**BIGARRENA: DIRU LAGUNTZEN  
ZENBATEKO OSOA**

2.- Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontua ehun eta hogeita hamar mila eurokoa da (130.000 €).

**BASES REGULADORAS DE LA SEGUNDA  
CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL  
EQUIPAMIENTO Y LA ORGANIZACIÓN DE  
ACTIVIDADES DE LAS AULAS UNIVERSIDAD-  
EMPRESA**

**PRIMERA.- OBJETO**

1.1-La presente convocatoria tiene por objeto la concesión de ayudas para la dotación de equipamiento y la organización de actividades propias de las Aulas Universidad-Empresa de la UPV/EHU que se desarrollen en el año 2020 (1 de enero al 31 diciembre).

1.2-Las actuaciones y actividades objeto de esta convocatoria deberán realizarse en el año 2020.

1.3-No se podrán presentar solicitudes sobre la misma actividad a diferentes Convocatorias de la UPV/EHU.

1.4- Estas ayudas serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por otras instituciones públicas o privadas, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación.

**SEGUNDA: DOTACIÓN ECONÓMICA**

2.-El importe destinado al cumplimiento del objeto fijado es de ciento treinta mil euros (130.000 €).

## HIRUGARRENA.- ONURADUNAK

3.1.- Laguntza honen onuradun izan ahalko dira batetik, unibertsitatea-enpresa gelak dituzten UPV/EHUko ikastegiak (hau da, ikastegiko gelak dituztenak), eta, bestetik, campuseko gelak dituzten campuseko errektoreordetzak, eta gelak jada abian direnak eta sortu berriak izan daitezke.

3. 2.- 2020ko bigarren deialdi honetan, honako Unibertsitate-Enpresa Gelak eskatu ahal izango dituzte jarduerak antolatzeke eta ekipamendua eskuratzeko laguntzak:

a) 2020ko lehen deialdian formalki eratuta ez zeudelako laguntzarik lortu ezin izan zuten Unibertsitate-Enpresa Gelak.

b) Arrazoi ezberdinak direla medio, 2020ko aurreko deialdian eskaera bat aurkeztu ezin izan zuten arduradunen jarduneko Gelak.

d) Atal honetako a) eta b) puntuetan jasotako premiei erantzun ondoren (eta ordena berean) programa honi dagokion finantzaketa agortu ez bada, laguntzak eman ahal izango zaizkie Unibertsitatea-Enpresa Geletarako laguntzen 2020ko lehen deialdiaren oinarrien arabera bertan eska daitekeen gehieneko laguntzaren muga gainditzen duen kanpo-finantzaketa lortzeko gai izan diren arduradunei.

3. 3.- Deialdi honen bidez emandako laguntzak geletako jarduerak egiteko enpresek eta beste erakunde batzuek ematen dituzten laguntzen osagarri dira, eta, beraz, eskaria egiten duten ikastegi edo errektoreordetzek egiaztatu beharko dituzte UPV/EHUtik kanpo lortutako ekarpenak.

## TERCERA.- ESTRUCTURAS BENEFICIARIAS

3.1- Podrán beneficiarse de estas ayudas los Centros de la UPV/EHU que albergan Aulas Universidad-Empresa en el caso de las Aulas de Centro, y los Vicerrectorados de Campus en el caso de las Aulas de Campus, tanto en lo que respecta a las Aulas ya en funcionamiento como a las de nueva creación.

3.2.- En esta segunda convocatoria de 2020, se podrán solicitar ayudas para la organización de actividades y equipamiento de las Aulas Universidad-Empresa siguientes:

a) Aulas Universidad-Empresa que no pudieron obtener ayuda alguna en la primera convocatoria de 2020 por no estar formalmente constituidas.

b) Aulas en funcionamiento cuyos responsables, por diferentes motivos, no pudieron presentar una solicitud en la convocatoria anterior de 2020.

c) Siempre que, una vez atendidas las necesidades recogidas en los puntos a) y b) de este apartado (y en ese mismo orden), no se haya agotado la financiación correspondiente a este programa, se podrán conceder ayudas a aquellas Aulas cuyos responsables hayan sido capaces de captar financiación externa que supere el límite de la ayuda máxima que, según las bases de la primera convocatoria de ayudas para Aulas Universidad-Empresa de 2020, puede solicitarse en la misma.

3. 3.- Dado que las ayudas concedidas a través de esta convocatoria están diseñadas para complementar las aportaciones que las empresas y demás tipos de entidades realizan para el sostenimiento de las actividades a desarrollar en las Aulas, será requisito imprescindible que los Centros y Vicerrectorados solicitantes acrediten la aportación de la entidad externa a la UPV/EHU.

3. 4.- Martxan diren gelen kasuan, laguntza lortu ahal izateko, ezinbestekoa izango da unibertsitatearen eta enpresaren arteko hitzarmena indarrean izatea eta behar bezala egiaztatzea aurreko ekitaldian lortutako laguntza (laguntzarik eskatu eta lortu izanez gero).

3.5.- Gela berrien kasuan, ulertuko da unibertsitatea-enpresa gela martxan dagoela hitzarmena UPV/EHUko organo eskudunak onartu eta aldeek sinatuta dutenean.

#### **LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK**

4.1.- Laguntzak geletako ekipamenduak eskuratzeko izango dira, bai eta geletan antolatzen diren jarduerak eragindako gastuetarako ere. Ondorengo hauek dira II. kapituluaren diru laguntza eskuratu dezaketen gastuak, zerrenda zehatza ez bada ere:

- Bulegoko materiala
- Material didaktikoa
- Erreprografia zerbitzua
- Bilerak eta ikastaroak
- Hizlarien garraio eta ostatu gastuak
- Ordezkaritza gastuak
- Inprimagailuen alokairua

Ondorengo hauek dira, besteak beste, VI. kapituluaren dirulaguntza eskuratu dezaketen gastuak:

- Altzariak
- Ikus-entzunezkoak

3. 4- En el caso de las Aulas en funcionamiento, será requisito indispensable para obtener la ayuda que el Convenio que las sustenta continúe en vigor y que se haya justificado suficientemente la ayuda obtenida el ejercicio anterior, en caso de haberse solicitado y obtenido.

3.5- En el caso de las Aulas de nueva creación se entenderá que un Aula Universidad-Empresa existe una vez que el Convenio que la sustenta sea aprobado por el órgano competente de la UPV/EHU y, además, sea suscrito por las partes.

#### **CUARTA.- GASTOS SUBVENCIONABLES**

4.1- Estas ayudas irán dirigidas a sufragar los gastos de equipamiento de las Aulas, así como los directamente imputables a la ejecución de las diferentes actividades que organicen. A título orientativo, se considerarán gastos subvencionables correspondientes al Capítulo 2, entre otros, los siguientes:

- Material de oficina.
- Material didáctico.
- Servicios reprografía.
- Reuniones y cursos.
- Gastos de transporte y alojamiento de ponentes y/o conferenciantes.
- Gastos de representación.
- Alquiler de impresoras.

Se considerarán gastos subvencionables correspondientes al Capítulo 6, entre otros, los siguientes:

- Mobiliario.
- Audiovisuales.



- Informatika tresneria
- Irakaskuntza/zientzia ekipamendua

4.2.- Ez dira, inolaz ere, diruz lagunduko gastu hauek:

- UPV/EHUrekin lotura daukaten langileei (estatutupekoiei edo lan kontratudunei) zerbitzu arrazoiengatik ordaindutako ordainsariak eta kalte-ordainak, ez eta bekadunei eta praktiketako ikasleei egindako ordainketak ere.

#### **BOSGARRENA.- ZENBATEKOA**

5.1.- Deialdi honen babesean, jarduera bakoitzari gehienez emango zaion diru kopurua ez da inolaz ere eskatutako kopurua baino handiagoa izango, ez deialdiko zehaztutako aurrekontua (30.000 euro) baino handiagoa 3. 2. Oinarriaren a) eta b) ataletan adierazitako Gela kasuan. 3. 2. Oinarriaren d) atalean zehaztutako Gela kasuan, berriz, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da.

#### **SEIGARRENA.- AURKEZTEKO ERA ETA EPEA**

6.1.- Eskariak aurkezteko epea deialdia hau UPV/EHUren Transferentzia eta Berrikuntzaren web gunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/enpresa/home>) eta UPV/EHUren iragarki oholetan argitaratu eta biharamunean irekiko da.

- Equipamiento informático.
- Equipamiento docente/científico.

4.2- En ningún caso serán objeto de subvención los siguientes gastos:

- Retribuciones e indemnizaciones por razón de servicio del personal vinculado a UPV/EHU estatutaria o contractualmente, ni asignaciones o remuneraciones del personal becario o alumnado en prácticas.

#### **QUINTA.- CUANTÍA DE LAS AYUDAS**

5.1- La cantidad máxima asignada a cada actividad con cargo a esta convocatoria nunca será superior al importe solicitado, ni al límite máximo de 30.000 euros en el caso de las Aulas señaladas en los apartados a) y b) de la Base 3. 2. En el caso de las Aulas señaladas en el apartado c) de la Base 3. 2., se establece un límite máximo de 15.000 euros.

#### **SEXTA.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**

6.1- El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día siguiente al de publicación de esta convocatoria en el Portal web de Transferencia e innovación de la UPV/EHU (<https://www.ehu.eus/es/web/enpresa/home>) y en el Tablón de anuncios Corporativo de UPV/EHU.



6.2.- Eskaria gelaren arduradunak egin behar du, hau da, ikastegiak edo errektoreordetzak gelaren arduradun izendatutakoak.

6.3.- Eskari bakarra aurkeztu ahal izango da gelako.

6.4.- Agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskari orria behar bezala beteta (I. eranskina). Eskaria ikastegiak edo campuseko errektoreordetzak gelaren arduradun izendatutako pertsonak aurkeztu behar du, eta, horren egiaztagiri, ikastegiak edo errektoreordetzak ontzat eman beharko du. Dirulaguntza organikoaren bidez ordainduko da; beraz, eskarian zehaztu egin beharko da nor den organika horren arduraduna.
- Jardueren zerrenda edo/eta eskuratuko den ekipamenduen zerrenda, aurrekontu zehatza adierazita (kontzeptu nagusienetan banatuta), bai eta diru sarrerak ere (finantziario iturriak adierazita) (II. eranskina). 3.2 Oinarriko d) atalean aipatzen diren Gelen kasuan, laguntzen lehen deialdian aurkeztutako dokumentu bera aurkeztu ahal izango da.
- Gelak daukan hitzarmena eta kanpotik lortutako ekarpenaren egiaztagiria.

6.2- La solicitud debe ser presentada por la persona designada por el Centro o por el Vicerrectorado como responsable del Aula.

6.3- Solo se puede presentar una solicitud por Aula.

6.4- La documentación a presentar será la siguiente:

- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado (anexo I). El impreso de solicitud deberá ser presentado por la persona designada como responsable del Aula por el Centro o por el Vicerrectorado de Campus, circunstancia que quedará acreditada mediante el visto bueno del Centro o Vicerrectorado correspondiente. En la solicitud se señalará la persona que será responsable de la gestión de la orgánica en la que se habilitará el crédito correspondiente a la ayuda.
- Relación de las actividades a realizar y/o equipamiento a adquirir, junto a un presupuesto detallado que incluya los gastos (desglosados en los principales conceptos) y otros ingresos (indicando las fuentes de financiación) (anexo II). En el caso de las Aulas a que se refiere el apartado c) de la Base 3.2., se podrá presentar el mismo documento que se presentó en la primera convocatoria de ayudas.
- Copia del Convenio que sostiene el Aula y documento acreditativo de la aportación de la entidad externa.

- Interesgarriak izan daitezkeen beste agiri batzuk.

Hau da: eskariarekin batera egiaztagiriak aurkeztu behar dira, eskaria aztertzeko beharrezko direnak, zein emandako laguntzaren jarraipena egiteko beharrezko direnak.

6.5.- Eskaera behar bezala aurkeztutzat joko da baldin eta eskari-inprimakia eta gainerako dokumentazioa UPV/EHUko Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUren idazkaritza nagusiaren webgunean zerrendatutako bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren leku 39/2015 legearen 16.4 artikulua araberaren aurkez daitezke.

Halaber, aipatutako 39/2015 legeak ezarri bezala, eskarik edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria zigitatuko badu. Ondoren, posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

**Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza, Errektoregoko Eraikina, Bizkaiko Campusa, Sarriena auzoa, z.g., 48940 Leioa.**

Gutun azalean idatzi beharko da: "UPV/EHUko Unibertsitatea-Enpresa Geletarako

- Otros documentos de interés.

Es decir, junto con la solicitud deberá entregarse la documentación suficiente, tanto para su valoración global, como para el posterior seguimiento del destino de la ayuda finalmente concedida.

6.5- La solicitud sólo se considerará formalmente registrada cuando se entregue tanto el impreso de solicitud como el resto de la documentación dirigida al vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia de la UPV/EHU en cualquiera de los registros generales de los Campus de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, o en cualquiera de las oficinas enumeradas en la página web de Secretaría General de la UPV/EHU o, en su caso, en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, tal y como establece la citada Ley 39/2015, las solicitudes también se podrán registrar en cualquier oficina de Correos. En ese caso, la documentación se presentará en sobre abierto con objeto de que el personal de correos registre la primera hoja de la solicitud. A continuación, se remitirá por correo certificado a la siguiente dirección:

**Vicerrectorado de Desarrollo Científico y Transferencia, Edificio Rectorado, Campus de Bizkaia, Barrio Sarriena s/n, 48940 Leioa.**

En el sobre debe indicarse "Ayudas para el equipamiento y la organización de actividades de las Aulas Universidad-Empresa de la UPV/EHU".

ekipamendua eskuratzeko eta jarduerak antolatzeko laguntzak”.

6.6.- Epea: Eskariak aurkezteko epea 2020ko urriaren 7an, 16:00etan amaituko da.

6.6- Plazo: El plazo para la presentación de las solicitudes finalizará el día 7 de octubre de 2020 a las 16:00.

### **ZAZPIGARRENA.- ESKARIKO AKATSAK ZUZENTZEA**

Aurkeztutako agiriak behin aztertuta ikusiz gero agiriren bat falta dela edo akatsen bat dagoela, eskari egileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo falta diren agiriak eransteko, eta adieraziko zaio horrela egin ezean eskaria bertan behera geratuko dela alde zuzenetik erabakia emanda.

### **ZORTZIGARRENA.- ESLEIPENERAKO PROZEDURA**

8.1.- Batzordea: eskariak aztertu eta balioesteko batzordeko kide izango dira: Garapen Zientifikoko zuzendaria, Berrikuntza eta Transferentziako zuzendaria eta UPV/EHUko ITRBko teknikari bat.

8.2.- Eskariak aztertzeko irizpideak: eskariak aztertu eta laguntzak emateko erabakia proposatzeko, batzordeak irizpide hauei jarraituko die:

a) Gela sortu berria bada:

- Gelak izan dezakeen eragina (gelako

### **SÉPTIMA.- SUBSANACIÓN DE DEFECTOS EN LA SOLICITUD**

Si analizada la documentación presentada se observase que ésta es incompleta o defectuosa, se requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo de 10 días hábiles, subsane la falta o acompañe la documentación necesaria, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, previa resolución.

### **OCTAVA.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN**

8.1- Comisión de valoración: la comisión encargada del análisis, evaluación y valoración de las solicitudes presentadas estará integrada por el director o directora de Desarrollo Científico, el director o directora de Innovación y Transferencia de y una persona de perfil técnico de la OTRI de la UPV/EHU.

8.2- Criterios de valoración: al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones, la comisión de valoración tendrá en cuenta los criterios siguientes:

a) En el caso de las aulas de nueva creación:

- Impacto potencial del aula, en términos de cantidad

jardueren bidez zuzenean onuradun izan daitekeen ikasle kopurua).

- Baliabideen eraginkortasuna: gelak guztira daukan kostua ikasle onuradun bakoitzeko, eta kanpoko finantzaketa.

b) Sortuta dauden geletarako:

- Gelak izan dezakeen eragina (gelako jardueren bidez zuzenean onuradun izan daitekeen ikasle kopurua).

- Baliabideen eraginkortasuna: gelak guztira daukan kostua ikasle onuradun bakoitzeko, eta kanpoko finantzaketa.

- Hobekuntza maila. Deialdi honen bidez diruz lagundutako jardueretako batzuen helburua izan behar da eragina eta baliabideen eraginkortasuna hobetzea.

Jarduera horietarako emango den laguntzaren zenbatekoa bi alderdi horietarako aurreikusitako hobekuntzaren menpe egongo da, bai eta aurreko deialdietan lortutakoaren menpe ere.

- 2019ko ekitaldian laguntza eskuratu zuten gelen kasuan, laguntza zein heinean bete den eta gastuaren justifikazioa izango dira kontuan.

8.3.- Batzordeak bere ustez egoki diren argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskari egileei, eskabideok behar bezala aztertu ahal izateko.

8.4.- Etleipenerako proposamena:

de alumnos y alumnas que se beneficiarán directamente a través de la realización de actividades en el Aula.

- Eficiencia en recursos, en términos de coste total del aula por alumnado beneficiario y nivel de cofinanciación externa del mismo.

b) En el caso de las aulas en funcionamiento, se tendrán en cuenta los siguientes:

- Impacto potencial del aula, en términos de cantidad de alumnos y alumnas que se beneficiarán directamente a través de la realización de actividades en el Aula.

- Eficiencia en recursos, en términos de coste total del aula por alumnado beneficiario y nivel de cofinanciación externa del mismo.

- Grado de mejora. Cada año, parte de las actividades del aula apoyadas a través de esta convocatoria deberán estar destinadas a la mejora de las componentes de impacto potencial y de eficiencia de recursos anteriores.

El importe para el apoyo de estas actividades dependerá del grado de mejora previsto en ambas componentes y del conseguido en ediciones anteriores de la convocatoria.

- En el caso de las Aulas en funcionamiento que obtuvieron la ayuda el ejercicio 2019, se valorará el grado de ejecución de la ayuda obtenida y la adecuada justificación de la misma.

8.3- La Comisión podrá requerir a las personas solicitantes cuantas aclaraciones entienda oportunas, a fin de garantizar la correcta valoración de las solicitudes presentadas.

8.4- Propuesta de adjudicación:

8.4.1.- Batzordeak eskariak eta agiriak aztertuko ditu eta kontuan hartuta 8.2 oinarriko irizpideak, laguntza ematea edo ezestea erabakiko du, bai eta emango den laguntzaren zenbatekoa ere.

8.4.2.- Batzordeak aktan jasoko du erabaki proposamena, eta, era berean, UPV/EHUko Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordeari bidaliko dio.

8.5.- Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordeak informazio osagarria eskatu ahal izango du deialdia ebazteko.

8.6.- Erabakia:

8.6.1.- Esleipena Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordeak emandako erabakiaren bidez egingo da.

8.6.2.- Eskari egileek 10 egunen epea izango dute, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, adierazteko laguntza onartzen dutela edo uko egiten dutela, edo egokitzat jotako alegazioak aurkezteko.

Alegazioen dokumentua UPV/EHUko Erregistro Orokorraren, gaituriko campuseko/ikastegiko erregistro osagarrien edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez aurkeztuko da.

Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko bere eskubideari uko

8.4.1- La comisión de valoración procederá al examen de las solicitudes y documentación presentadas de acuerdo con los criterios recogidos en la Base 8.2, y propondrá la concesión o la denegación de la ayuda, y la cuantía de la misma.

8.4.2-La Comisión de valoración, elevará su propuesta, que será reflejada en acta, al Vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia de la UPV/EHU.

8.5-El Vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia podrá solicitar información adicional para la resolución de la convocatoria.

8.6- Resolución:

8.6.1-La adjudicación se realizará mediante resolución del Vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia.

8.6.2-Las personas solicitantes tendrán un plazo máximo de 10 días a partir del día siguiente a la publicación de dicha propuesta para manifestar su aceptación, su renuncia o exponer las alegaciones que estimen oportunas.

El documento de alegaciones se presentará a través del Registro General de la UPV/EHU, los registros auxiliares de campus/centro habilitados, o cualquiera de los procedimientos recogidos en el art. 16.4 de la Ley 39/2015 sobre Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Transcurrido el plazo indicado sin presentar alegaciones, la propuesta de resolución provisional se considerará aceptada, y se entenderá al personal interesado decaído en su derecho a alegar.

La resolución del Vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia sobre la concesión de estas ayudas se

egin diola ulertuko da.

Erabakia Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordearen erabakiaren bidez argitaratuko da ikerketaren webgunean; hala ere, banakako erabakia bidaliko zaio eskatzaile bakoitzari.

8.7.-Erabakiaren kontra berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren leko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

8.8.- Era berean, erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabakia iragarri eta hurrengo egunetik hasita.

8.9.- Eskari egileei egingo zaizkien jakinarazpenak Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren posta elektronikoen bidez egingo dira ([vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus](mailto:vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus)).

### **BEDERATZIGARRENA.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Deialdi honen bidez araututako laguntzaren onuradun diren ikastegi eta campusetako errektoreordetzek honako betebeharrak dituzte:

- Laguntza erabakian adierazitako helburuetarako erabiltzea.

publicará en la página web del Vicerrectorado y se enviará una resolución individual por correo electrónico a las personas solicitantes.

8.7- La citada resolución individual podrá ser recurrida en reposición en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los Artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

8.8- Asimismo, contra la citada resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su notificación.

8.9- Las comunicaciones con las personas solicitantes se realizarán a través del correo electrónico del Vicerrectorado de Desarrollo Científico y Transferencia ([vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus](mailto:vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus)).

### **NOVENA.- OBLIGACIONES DE LAS ESTRUCTURAS BENEFICIARIAS**

Los centros o vicerrectorados de Campus beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente convocatoria deberán cumplir las siguientes obligaciones:

- Destinar la ayuda a los fines para los que ha sido concedida.



- Laguntzaren xede diren jarduera eta ekipamenduetan aldaketaren bat eginez gero, horren berri ematea.
- Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak eskatutako agiri guztiak ematea, errektoreordetzaren ustez laguntzaren xede den proiektua behar bezala betetzen ari dela egiaztatzeko eta bermatzeko beharrezko izan daitezkeenak.
- Gelaren komunikazio euskarriek (paperek, informazio orriek, kartelek, liburuek, gonbidapenek eta abar.) eta gelen errotulazioak UPV/EHUko Erakunde Irudiaren Eskuliburuan zehaztutakoa bete beharko dute. Horrez gain, deialdi honen bidez hein batean edo osorik lagundutako jarduerak zabaltzeko erabilitako sistema guztietan UPV/EHUren ikurra ageri beharko da.
- Comunicar cualquier modificación que afecte a la organización de las actividades o adquisición de equipamiento para los que ha concedido la ayuda.
- Facilitar la documentación que le solicite el Vicerrectorado de Desarrollo científico y Transferencia para la realización de cuantas comprobaciones o aclaraciones considere oportunas en orden a garantizar la correcta ejecución del proyecto subvencionado.
- Todos los soportes de comunicación del Aula (papelería, folletos, carteles, libros, invitaciones, etc.), incluida la propia rotulación del local o locales en los que se ubique, deberán respetar lo previsto en la Guía de Imagen Corporativa de la UPV/EHU. Además, todas las actividades subvencionadas, parcial o totalmente, por la presente Convocatoria deberán recoger en los sistemas de difusión utilizados el logo general de UPV/EHU.

## HAMAIKAGARRENA.- LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

10.1.- 2020ko aurrekontu ekitaldia bukatu eta gehienez hamabost eguneko epean, agiri hauek bidali beharko dira Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzara:

- Egindako jardueren memoria eta

## DÉCIMA.- JUSTIFICACIÓN DE LA AYUDA

10.1-En el plazo máximo de quince días desde la finalización del ejercicio presupuestario 2020, se deberá hacer llegar al Vicerrectorado de Desarrollo Científico y Transferencia la siguiente documentación:

- Memoria de las actividades realizadas y el



laguntzarekin erositako ekipamendua. Memorian, honako adierazleak jaso beharko dira: egindako jarduera kopurua eta mota; jarduera bakoitzean parte hartu duen ikasle kopurua (gizonezkoak eta emakumezkoak zehaztuta); parte hartu duen irakasle kopurua; parte hartu duten ikasleen gogobetetze maila; jardueretan parte hartu duten kanpoko eragileen kopurua.

- Laguntza jaso duen jarduerak eragindako gastuen egiaztagiriak (jatorrizko fakturak UPV/EHUren IFKarekin (Q-4818001-B)).
- Joan-etorriarik eginez gero, bidaiaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira (hegazkineratze txartela, garraioetako txartelak, autobideko tiketak...)

Agiri horiek guztiak helbide honetara bidali beharko dira: Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza, Errektoregoko Eraikina, Bizkaiko Campusa, Sarriena auzoa, z.g., 48940 Leioa. Gutun azalean idatzi beharko da: "UPV/EHUko Unibertsitate-Enpresa Geletarako ekipamendua eskuratzeko eta jarduerak antolatzeko laguntzak".

10.2.- Gastuen justifikazioa UPV/EHUren araudi orokorrera egokitu beharko da uneoro. Jarduera gauzatzean egin beharreko

equipamiento adquirido con la ayuda concedida. Dicha memoria contendrá además información sobre los siguientes indicadores de resultados: nº y tipo de actividades realizadas; nº de estudiantes participantes en las actividades (desglose hombres-mujeres); nº de profesores/oras participantes; grado de satisfacción del alumnado participante con las actividades realizadas; y nº de agentes externos participantes en las actividades.

- Documentación acreditativa de los gastos contraídos para llevar a cabo la actividad subvencionada (facturas originales con indicación del nº de CIF de UPV/EHU Q-4818001-B).
- En el caso de desplazamientos, será necesaria la entrega de documentos acreditativos de haber realizado los mismos (tarjetas de embarque, billetes de medios de transporte, tickets de autopista...).

Dicha documentación deberá enviarse a la siguiente dirección: Vicerrectorado de Desarrollo Científico y Transferencia, Edificio Rectorado, Campus de Bizkaia, Barrio Sarriena s/n, 48940 Leioa, indicando en el sobre ***"Ayudas para el equipamiento y la organización de actividades de las Aulas Universidad-Empresa de la UPV/EHU"***.

10.2- La justificación de los gastos deberá ajustarse en todo momento a la normativa general de UPV/EHU. Las contrataciones a llevar a cabo en la

kontratazioak zerbitzuen edo horniduren enpresa emakidadunen bidez egin beharko dira. UPV/EHUn webgunean dago eskuragarri enpresa horiei buruzko informazioa:

<http://www.ehu.es/eu/group/kontratazioa/interes-orokorreko-kontratuak>

10.3.- 2020ko azaroaren 15a baino lehen, laguntza eskuratu dutenek Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote aurreikusitako jardueran bat bertan behera geratuko den, eta horrelakorik gertatuz gero, jakinarazpenarekin batera laguntzari uko egiteko eskaria aurkeztu beharko da.

10.4.- Laguntzan aldaketarik egiteko, aldeztu aurretik baimena lortu beharko da.

## **HAMAIKAGARRENA.- LAGUNTZAK ORDAINTZEA**

11.1.- Gelak 2019ko ekitaldian laguntzarik izan badu, 2020ko deialdian emango den dirulaguntza gelako arduradunaren izenean irekitako organikoaren bidez ordainduko da.

11.2.- Gela berria izan ez arren 2019ko ekitaldian laguntzarik izan ez badu, edo gela sortu berria bada, Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordeak laguntza esleitzeko behin betiko erabakia eman ondoren, organika bat ireki beharko da gelaren arduradunaren izenean, eta organika horren bidez ordainduko da 2020ko laguntza.

ejecución de la actividad tendrán que realizarse, por medio de las empresas concesionarias de los distintos servicios o suministros. La información relativa a dichas empresas se encuentra disponible en la página web de UPV/EHU: <http://www.ehu.es/es/group/kontratazioa/interes-orokorreko-kontratuak>

10.3.- Antes del 15 de noviembre de 2020, las personas destinatarias de las ayudas deberán informar al Vicerrectorado de Desarrollo Científico y Transferencia si alguna de las actividades previstas no se va a llevar a cabo, presentando la correspondiente renuncia a la ayuda concedida.

10.4.- Cualquier modificación de la ayuda concedida deberá ser autorizada previamente.

## **UNDÉCIMA.- ABONO DE LAS AYUDAS**

11.1.- En el caso de las Aulas existentes que hayan sido beneficiarias de ayuda el ejercicio 2019, la cantidad correspondiente a la ayuda concedida en 2020 se transferirá a la orgánica abierta a nombre de la persona responsable del Aula.

11.2.- En el caso de las Aulas existentes que no hayan sido beneficiarias de ayuda en 2019 o de las Aulas de nueva creación, una vez publicada la resolución definitiva de adjudicación del Vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia, se abrirá una orgánica a nombre de la persona designada responsable del Aula y se transferirá a la misma la cantidad correspondiente a la ayuda de 2020.

## **HAMABIGARRENA.- OINARRIAK ETA BETEBEHARRAK EZ BETETZEA**

12.1.- Deialdi honetan parte hartzeak baldintzak onartzea dakar berarekin. Hortaz, laguntza hauen ikastegi eta campuseko errektoreordetza onuradunak deialdiko baldintza eta betebeharrak guztiak betetzera behartuta daude eta horretara behartuta egongo dira eskariak aurkezte hutsarekin.

12.2.- Eskari egileek ez badituzte betetzen deialdian zehaztutako betebeharrak, deialditik kanpo geratuko dira hurrengo deialdian eta eskuratutako dirulaguntza itzuli beharko dute.

## **DUODÉCIMA.- SUPUESTO DE INCUMPLIMIENTO**

12.1-La participación en esta convocatoria implica la aceptación de las bases, por lo que los Centros y Vicerrektorados de Campus beneficiarios de las ayudas quedarán obligados a su cumplimiento en todos sus puntos por la simple presentación de la solicitud de participar en ella.

12.2-El incumplimiento de las obligaciones recogidas en esta convocatoria por los y las solicitantes supondrá su exclusión en la convocatoria del año siguiente y la obligación de devolución de las cantidades no destinadas a los fines para las que se concedieron.